

Dibertsitatearenganako arreta

**EROSKI-K EROSKETA ORGA EGOKITUAK JARRI
DITU BEHAR BEREZIAK DITUZTENENTZAT BERE
HIPERMERKATUETAN**

- Dendako entzuketa sistema batetik sortu zen ekimena, zeinaren bitartez Aurrera Markelekin elkarteak orga egokitu bat eskatu baitzuen dibertsitate funtzionala dutenei erosketak errazteko
- Oraingoan, hipermerkatu sarearen ia heren batean daude jarrita

Elorrio, 2022ko urriaren 24a.- Salmenta puntuetan oztopoak gutxitu eta inklusioa sustatzeko, [EROSKI](#)k egokituriko erosketak orgak txertatu ditu bere hipermerkatuetan, eguneroko jarduerak normaltasunez egiterik ez dituztenentzat, hala nola erosketak.

Haurrek (4 urtetik gorakoek) nahiz helduek erabiltzeko moduko orgak dira, eta 110 kilotik gora garraiatzeko gaitasuna dute. Ekipamenduak modua ematen du desgaitasun motoreak dituztenak garraiatzeko eta aldi berean erosketak egiteko, produktuak ekipamendura berera gehituta.

Oraingoan, EROSKIk bere hipermerkatuen ia heren batean txertatu ditu unitateok. Asmoa da orga eredu hori sare osora zabaltzen joatea.

Bezeroei dendan entzuteko zerbitzua

[Aurrera Markelekin elkartearen](#) eskariz sortua da ekimena. Garbera hipermerkatuko entzuketa zerbitzuaren bitartez, helarazi zuten orga egokitu baten beharra zegoela familiako kideren bat dibertsitate funtzionalarekin dutenek erosketak segurtasunez eta erosotasunez egiteko modua izan zezaten.

"Beharra planteatu zigutenean, EROSKIn soluzio bideragarri bat bilatzeko prozesua abiatu genuen. Ekipa egokiak aurkitu genituenean, Garberako hipermerkatuan jartzea erabaki genuen, eta zerbitzua beste denda batzuetara zabaltzea. Horrela, behar bereziak dituztenek aurkitzen dituzten oztopoak kentzea da asmoa. Egutero dihardugu dibertsitatea dutenentzako arreta hobetzen, eta gure eginahaltxoak egiten, gizartea inklusiboan izatea lortzeko. Izan ere, kooperatiba garen aldetik, gure balioen parte da hori", azaldu du EROSKIren Garapen zuzendariak, Javier Españak.

"Elkarrekin lanean jardun da EROSKIren ondoan soluziorik onena bilatzeko. Oso eskertuak gaude. Dena izan da borondate ona, gogoia eta gauzak ongi egin nahia. Orain, erosotza eta seguruago egin dezaket erosketak nire seme Markelekin, eta,

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



guk bezala, erosketarenaren moduko eguneroko oztopo ugarietara aurre egin beharrean izaten diren beste familia batzuek", esan du Maria Lesacak, Aurrera Markelekin elkarteko kideak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)